



DERISK ÜDALEKÜAK

2026



bertsozale
elkartea

Zatoz Bertso Udalekuetara!

Bertsozale Elkartean **1998tik** antolatzen
ditugu Bertso Udalekuak.

Euskal Herriko **zazpi herrialdeetako**
bertsozaleak elkartzen gara bertan.

Helburuak

- Bertsoaz **gozatzea** eta **bertsozaletzea**.
- Euskal Herri mailako **harreman sareak** sortzea.
- Lagunartean **euskara hutsean** aritzea;
euskararen eta errealitate soziolinguistikoen
aniztasunaz jabetzea.
- Partaideok **autonomia** garatzea eta taldean
elkarbizitzen ikastea, **aniztasunari** leku eginez,
parekidetasuna sustatuz eta balioak landuz.



**Bertso
Udalekuetako
bideoak
ikusgai!**



Zuhatzako uhartea

Uribarri Ganboa, Araba

Aterpetxea: Arabako Foru Aldundia

Ekintzak: bertso jolasak, gaubelak, ur kirolak
begirale espezialistekin, bertsolariekin bertso
saioa...

9-11 URTEKOEN TXANDA

- Egunak: Uztailak 26-30 (5 egun)
- Partaideak: 2015-2017 urteetan jaioak
- Prezioa: 255€



Getadar aterpetxea

Ezprogi, Nafarroa

Aterpetxea: Nafarroako Gobernua

Ekintzak: bertso eta sormen dinamikak, jolasak, gaubelak, igerileku irekietan egun-pasa, bertsolariekin bertso saioa...

12-13 URTEKOEN TXANDA

- Egunak: Uztailak 9-15 (7 egun)
- Partaideak: 2013-2014 urteetan jaioak
- Prezioa: 300€

14-15 URTEKOEN TXANDA

- Egunak: Uztailak 25-31 (7 egun)
- Partaideak: 2011-2012 urteetan jaioak
- Prezioa: 300€

16-18 URTEKOEN TXANDA

- Egunak: Uztailak 16-24 (9 egun)
- Partaideak: 2008-2010 urteetan jaioak
- Prezioa: 400€



**Ezagutu
Getadarko
aterpetxea!**



Eman izena!

Nola egin?

- Internet bidez: www.bertsozale.eus
- Online galdetegia webgunearen portadan jarriko da, bistan, izen-ematea hasten den egunean eta orduan (ez lehenago).

Epeak


- **Bertso-eskoletako** kideentzat edota gurasoetako bat **Bertsozale Elkarteko** bazkide dutenentzat: **martxoaren 2ko 11:00etatik, martxoaren 15era arte.**
- Gainerako kideentzat: **martxoaren 18ko 11:00etatik, apirilaren 13ra arte.**

Txandak osatzeko irizpideak

Izen-emate ordena hartuko da kontuan, txandak osatzeko.

Harremanetarako

943 69 41 29 eta aisialdia@bertsozale.eus



Noiz jakingo dugu?

Apirilean erantzungo zaie, izena eman duten guztiei, txandan lekurik duten.

Txandan lekua dutenei euren egonaldiari buruzko **informazioa eta araudia** bidaliko zaie.

Ordainketa eta diru-itzulketa

Erreserba baieztatzeko ordainketa epe bat jarriko da.

Behin udalekuak (dagokigun txanda) hasita **ez da dirurik itzuliko**.

Salbuespen kasu honetan itzuliko da dirua: partaidea osasun arazoengatik ezin bada udalekura etorri eta, betiere, **mediku-agiria aurkeztuta**.





bertsozale
elkartea

Babesleak



Laguntzaileak

